

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
NEREA YEREGUI BALDA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA

BERTARATU EZ DIRENAK

ANDER PRADOS OTAMENDI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Olló

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko ekainaren 25ean arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Olló idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2024-05-28KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2024-05-28ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Telefónica de España S.A.U

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko maiatzaren 31n, 30/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Telefonica de España S.A.Uri hirigintza lizentzia ematea NA-7513aren 1 puntu kilometriko inguruan 6 poste aldatzeko.

2. Telefónica de España S.A.U

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko maiatzaren 31n, 31/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Telefonica de España S.A.Uri

hirigintza lizentzia ematea NA-7513aren 1 puntu kilometriko inguruan zurezko 2 poste aldatzeko.

3. Frontoiko obrei eta Haur parkeari buruzko konpromisoa

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko ekainaren 13an, 32/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Araxes eskualdeko ikastetxe publikoan egin beharreko obrak (frontoiaren zorua egokitu eta parkea berritu), hitzarmenaren eduki direnak, 2024ko uztailaren 31^a baino lehen exekutatzeko konpromisoa hartzea..

4. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko ekainaren 14an, 33/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko apirilaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

5. Exekuzio agindua 2. Poligonoko 83. lursaila

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko ekainaren 24an, 34/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 2. Poligonoko 83. Lursailetik datorren jariora konpontzeko betetze-aginduari buruz espedientea hastea.

3. BETELUKO UDALAREN ETA MANANTIALES BETELU SAREN ARTEKO AKORDIOA ONARTZEA ETA AKORDIOAN AIPATUTAKO LURSAILAK LAGAPEN BIDEZ ESKURATZEA

2024-05-02an, Beteluko Udalean bilera bat egin zen alkate, hirigintzako zinegotzi eta udal arkitektoa Maria Urmeneta Fernándezekin, Udalaren aldetik, eta Erald Höltrust eta Fernando Martínez Chocarro enpresaren abokatuarekin, Manantiales de Betelu SAren aldetik. Era berean, Udalak proposatutako akordio bat egiteko aukera aztertu eta onartu da, izaera ludiko eta turistikoko udal-espazioak handitzeko eta sendotzeko interesei ekiteko, hau da, Manantiales de Betelu SAren jabetzakoa den 2. poligonoko 69. partzelaren zati bat eta 2. poligonoko 902. partzela osoa lagatzeko. Enpresak, erabaki zen bezala, honako akordio-proposamen hau aurkeztu du formalki:

- *Beteluko Udalari doan lagatzea Beteluko Katastroko 2. poligonoko 69. partzelaren zati baten jabetza. Partzela hori bat dator partzela-zedulan B eta F letrekin grafiatutako landa-eremuarekin. Hori formalizatzeko, udal arkitektoak egindako plano georreferentziatua egin beharko litzateke, eta bertan mugatuko genituzke zatiak.*

- *Iturria eta biltegia (eraikin bera osatzen dute) dauden Dama Iturri iturburuari dagokion eremua, partzela-zedulan C letrarekin grafiatua, egin beharko litzatekeen bereizketan Manantiales de Betelu SAren jabetzakoa izango litzateke, eta hark Beteluko Udalari baimena emango lioke biltegi gisa erabiltzeko eta jendeak, oro har, iturburura bisitak egiteko dagokion zortasunaren bidez. Hori formalizatzeko, udal*

arkitektoak egindako plano geoerreferentziatua egin beharko litzateke, eta bertan mugatuko genituzke zatiak.

- *Beteluko Udalari doan lagatzea Beteluko Katastroko 2. poligonoko 902. partzelaren jabetza.*

- *2. poligonoko 69. partzelan, Beteluko Udalaren alde lagako eta bereziko litzatekeena, Manantiales de Betelu SAren jabetzakoa den partzelaren zatiaren alde, bide-zortasun bat eratu beharko litzateke, egun dagoen bidetik igarotzeko, bai eta eroanbideen zortasun bat ere, gaur egun iturburuetatik lantegiraino ura biltzeko hodiak igarotzen direna.*

- *Fabrikarekin zintzilikatuko lukeen eremu berezian, egungo egurrezko hesiarekin itxi beharko litzateke, eta Udalak herriarentzako atea edo pasabidea jarri beharko luke, "Iturri Santu" iturburuko iturrirako sarbidea izateko.*

- *Katastroko 2. poligonoko 69. partzelatik igarotzen den Araxes ibaiaren ezponda konpontzeko beharrezkoak diren jarduketek eragindako gastu guztiak Beteluko Udalaren kontura izango dira, eta Beteluko Udalak bere gain hartuko du beharrezko mantentze-lanak egitea. (Horrek eragin du Alkatetzaren 2023/78 ebazpenean egindako errekerimendua).*

- *Beteluko Udalak Dama Iturri iturburua dagoen biltegia konponduko du; izan ere, eraikin bakarra da, bi gunetan banatua.*

- *Eskritura publikoak lagatzeak, bereizteak eta formalizatzak eragindako gastu eta zerga guztiak Beteluko Udalaren kontura izango dira.*

Beteluko Udaleko udalbatzak 2024ko maiatzaren 28an egindako batzarrean proposamena ontzat jotzea eta beharrezko espedientea bideratzea erabaki zuen, ezarritako kargen balioek jasotako lursailen balioa gainditzen ez dutela egiaztatzeko. Hau dena, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko 6/1990 Foru Legearen 109.2 artikulua kontuan izanik.

Udal arkitektoak jasotzeko nahi den lursailaren eta bere kargen balioei buruzko txostena egin du. Txostenaren arabera, kargen balioa ez da lursailaren balioa baino handiagoa.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez ondokoa erabaki du:

Lehenengoa. Beteluko Udalaren eta Manantiales Betelu SAren arteko akordio proposamena onartzea.

Bigarrena: Akordioan aipatzen diren lursailak lagapen bidez eskuratzea (2. Poligonoko 69. Lursaileko B eta F azpilursailak eta 2. Poligonoko 902. Lursaila) akordioan esandako baldintzekin.

Hirugarrena: Beteluko udaleko alkatea ahalduntzea erabaki honetatik erator daitezkeen dokumentuak formalizatu ahal izateko.

4. 2023KO KONTUEN ESPEDIENTEAREN ONARPENA.

Udal Kontuen Batzordeak 2023ko ekitaldiari dagokion Beteluko Udalaren Kontu Orokorrei buruz 2024ko maiatzaren 14an egindako aldeko txostena ikusirik

Kontu orokorra Udaletxeako iragarki oholean iragarri ondotik 15 egun balioduneko epean, 2024ko maiatzaren 15etik 2024ko ekainaren 5era arte, jendaurrean egon dela kontuan harturik, interesatuek inolako alegazio edo kexarik aurkeztu gabe.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 242.4 eta 242.5 artikuluekin bat, zera ERABAKI DA:

1. 2023ko ekitaldiari dagokion Beteluko Udaleko Kontu Orokorra onartzea.

2. Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioako Departamentuari espedientearen kopia bidali.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udal bilkuran diren guztien adostasunarekin onartu da.

5. FAKTUREN ONESPENA

Urzubi	F. A478	2.173,16 €
A tu lado / Zurekin	F. 2024-000183	1.270 €
Hortalizas Etxeberria	Landare eta loreen erosketa	13 €
Hortalizas Etxeberria	Landare eta loreen erosketa	41,90 €
Venus Campos Walsh	DFA_/28 Maiatzeko garbiketak	2.734,59 €
Venus Campos Walsh	DFA_/29 Maiatzeko zakarrontzien bilketa	123,42 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa maiatza	293,58 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa maiatza	185,14 €
Iberdrola	Urberoa maiatza	7,16 €
Animsa	Bigarren hiruileko mantenua	1.166,29 €
Chocarro y Urmeneta SLP	Memoria (errepideko drenaje lanak)	1.512,50 €
Iberdrola	Udaleko pisua maiatza	10,14 €
Sumalim sl	Eskolako parkea	23.579,8 8 €
A-LOK	Giltzen kopia	39 €
Itxaso Bakedano	F. 27-2024	547,31 €
Gurrola Elkartea	F. 6	272,25 €
Congost Plastic	F. 24-7598	1.748,45

		€
Goiener	Eskolako maiatzeko argia	790,67 €
Goiener	Udaletxeko maiatzeko argia	687,67 €
Maite Garcia Satrustegi	F. A1/135	159,56 €
IDM life saving equipment	F. 920	128,84 €
Zelai	F. A1287-24	113,26 €
Codisna	F 24232	239,58 €
Repsol	F. 5917/Y/24/11	52,02 €
Wikai	Maiatzeko gastua	112,11 €
Miguel Ramon Olano	F. 29/2024	90,75 €
Chapa y pintura Goñi	F.240488	2.420 €
Angelines Carrillo Ruiz	Maiatzeko uraren kontrola	90 €
Nafarroa Iparraldeko Euskara M.	Eskualdeko aurrekontuaren %50	3.251 €
Nafarroa Iparraldeko Euskara M.	Aurrekontu orokorraren %50	3.954 €
Miguel Ramon Olano	F.31-2024	589,88 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Maiatzeko gastua	121,66 €
Codisna	F. 24.275	239,58 €
Loreno Otamendi Artola	F. 955	127,70 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 58	902,54 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 59	582,01 €
Urzubi	F. A 585	275,54 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Maite Garcia Satrustegi	Maiatzeko bazkariak	1.067,30 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Apirileko garbiketa produktuak	18,40 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Apirileko janaria	59,77 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Maiatzeko janaria	76,89 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Maiatzeko garbiketa produktuak	24,55 €
	DENETARA:	51.893,0
		5€

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederlatziak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.